

Noaua!!!

www.noaua.com



Asteburu honetan,
piragua zeharkaldiak

Jai giroa Kalezarren





ALKARTASUNA

Usurbilgo Baseritarren Kooperatiba

ondo pasa San Joanak!!

Erraustegian sortuko diren
sustantziek ze ondorio
dakartzate?

"...Leuzemia edo Haurren
minbizia garatzeko arriskua
bikoiztu egiten da erraustegi
baten inguruneko **7,5 Km**
barne bizi den haurren
populazioan"

Iturria: Knox.E, Erresuma Batua.
2000ko Ekaina.

Osasun-tekniko batzordea



SAIDA



ile apainketa
betileen tintaketa

prezio bereziak jubilatuei!

Kalezar - 943 372 952

Albiste iruditan !!

Ikastola jai-giroan, oporraldiaren atarian

Europako hauteskundeak tarteko, ekainaren 14ra arte atzeratu zuten Ikastolaren Eguna. Urtero legez, LH eta DBH-ko ikasleen arteko jokoak burutu ziren ikastola aurreko plazan. Artean, aipatu ikasleek teknologia eta plastika arloetan egindako lanak erakusgai jarri zituzten. Eguerdian, jai gunea Kirolegira lekuz aldatu zen. Herritar ilara luzea ikus zitekeen atarian. Ez zen gutxiagorako, haur jaialdiak hogeitau urte betetzen zituela eta, guztiak aurtengo ikuskizunaz gozatzeko aukera eta tokia izan nahi zuten. Ospakizun eguna, frontoian burututako herri bazkari batekin amaitu zen. Ikasturtea ez ordea, azken klase eguna ostiral honetakoa, ekainaren 19koa izango baita.



OPORRALDIA GERTU DELA OSPATU DA AURTENGO IKASTOLAREN EGUNA. IKASTURTEA OSTIRAL HONETAN AMAITUKO DUTE.

Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com
Aldizkari koordinaatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com
Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

AGINAGAKO UDAKO TXOKOAK _____ **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN _____ **6. OR.**

PIRAGUA ZEHARKALDIK, ORIA IBAIAN _____ **14. OR.**

ESKUBALOIAREN EGUNA, LARUNBATEAN _____ **15. OR.**




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tf 36 21 64
USURBIL

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186



MAIALEN UNANUE

Ondo entzun al dut?

Eguraldi ona laister ate joka izango dugulakoan, estetika zentru batera joan nintzen lehengo batean, zorionez edo zoritxarrez guztiok ditugun ileak kentzeko. Normalean ez naiz hara joaten eta niretzat ez zen egoera oso eroso; nola esan, horrelako egoera batean bertako langilearekin konfiantza izateak halako lasaitasun bat ematen du.

Musikarik ez, gela txikiek sortzen duten itolarria... Eta isiltasuna. Guztia zen nahiko deserosoa. Nonbait, nire hanketan kontzentratuta zegoen neska gazte hark nabaritu egin zuen eta betiko galderak egiten hasi zen. "Para romper el hielo", erdaraz esaten den moduan. Hanketan sentitzen nuen mina ahazte aldera, jaramon egin eta hizketaldi txiki bat izan genuen.

Hark hartu zuen inizatiba momentu oro, nabari zuen horrelako une gehiago bizi izan zituela eta ohituta zegoela haiei aurre egiten. Denetik galdetu zidan eta kazetaritza ikasten nuela jakin zuenean hasi zen gustura hitz egiten batz eta besteaz. Nik zera esan nion, irratia asko gustatzen

zitzaidala eta baita idaztea ere, "baina telebista..."

Orduan halako emozio bat sartu zitzaion emakumeari eta barne barnetik hitz egiten hasi zitzaidan. Suminduta zegoela sentitu nuen. Guztia ongi antzera zihuan telezaborraz hitz egiten hasi ginen arte. Nabari zen hura ere aspertzen hasia zegoela ezertarako balio ez duten saio amaigabeaz: "Egia da, telebista azkenaldian zabor hutsez beteta dago. Nire ustez, azkenean benetako kazetaritza egiten dutenak eta benetan balio duten saioak pertsonaia publikoen inguruko trapu zaharrak ateratzen dituzten horiek dira".

Ahoa eta begiak zabal zabalik. Hala geratu nintzen hitz haiek entzun ostean. Handik irten eta oraïndik ezin nuen sinestu ere egin entzun nuena. Neska horrentzat, beraz, zer da telezaborra? Albistegiak, agian? Ba hori ondorioztatzea besterik ez zait geratzen. Ados: zenbait albistegi ikusteak negargura eta guzti sortzen du, baina hortik errefusarekin batera birzikla genezakeen prentsa arrosa "kazetaritarik onena" dela esatera...

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Oilasko biltzaileen bazkarirako txartelak, ekainaren 19an salgai

Santixabeletan, oilasko biltzaileak uztailaren 3an aterako dira. Bazkariko tiketak ostiral honetan jarriko dira salgai, Txiribogan eta Ardibeltzen. Prezioa, 15 euro. Egunean bertan: 20 euro.

Oilasko biltzaileen bazkaria Askatasuna plazan egingo da, eta tiketak erosteko azken eguna ekainaren 30a izango da.

Igandean, mendi martxa Haitzaundira

Erainaren 19an bost urte hil Ezela Joxe Mari Arriaga, *Motza ezizenez* ere ezaguna. Bere errautsak Haitzaundin aireratu zituzten.

Igande honetan, ekainak 21, Haitzaundira abiatuko dira bere etxeok eta lagunak. Bertan den ikurriña aldatuko dute. Goizeko 9:00etan abiatuko dira Bordatxo tabernatik Haitzaundira.

Domotika eta energia aztergai, Usurbilgo Lanbide Eskolan

Erainaren 26an, Garapen-iraunkorrerako departamentuarekin batera jardunaldi bat antolatuko dute. Bertan, "Domotika eta energia-kontrola" izango dute aztergai.

Programa osoa Lanbide Eskolako webgunean dago ikusgai: www.lhusurbil.com

Informazio gehiago, telefono zenbaki honetan: 943 364 600.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

Ekainaren 20an amaituko da Immersoko bidaietan izena emateko epea

Imersok helduei zuzendutako lopor eskaintza egiten du urtero. Kostaldeko egonaldiak, bidaiak kulturak (historiaz eta arteaz gehiago jakiteko), naturan zehar ibilaldiak... Ekainaren 20an amaituko da izena emateko epea.

Programa horietan parte hartzeko, hauek dira bete beharreko hainbat baldintza:

-65 urtetik gorako pertsona izatea, pentsioduna izatea, alarguntasun pentsioa izatea 55 urte edo gehiagorekin, elbarritasun pentsioa izatea edota aurrejubiliazioa izatea, baina beti ere 60 urteak izanda.

Gainera, erretiratu edo pentsiodunaren senarra edota emaztea ere joan daiteke bidaietan, baldintza berezirik betetzeko beharrik gabe.

Gutxienez %45eko elbarritasuna duen semeak edo alabak ere parte hartu dezake, bidaiatzeko eta gurasoen laguntzarekin moldatzeko gai bada, beti ere.

Immersoko bidaiak baterako aukeratua



GIZARTE ZERBITZUETAN INFORMAZIO
GEHIAGO JASO DAITEKE.

izanez gero, hainbat zerbitzu ziurtatuta ditu bidaiariak: joan-etorriko bidaiak probintziako hiriburutik, ostalua mantenu osoarekin, taldekako segurtasun poliza, gizarte segurantzako medikuaren zerbitzua beharra izanez gero, eta baita animazio programak ere.

Ekainak 20, izena emateko azken eguna

Udaletxeko Gizarte Zerbitzuetara hurbildu eta bertan argibide guztiak jaso ahal izango dira.

Helbidea: Kale Nagusia, 43.

Telefonoa: 943 377 110.

Aginagako

Udako Txokoak

Ikasturtea amaitu da. Oporraldiaz gozatzeko garaia da orain. Haur eta gaztetxo askok, aukeran, aisialdiaz gozatzeko hainbat aukera izango dituzte Usurbilen, Zubietan eta Aginagan.

Zubietako Udako Txokoetan eta Usurbilgo Udajolasen izena emateko epea itxi zen duela aste batzuk. Baina Aginagako Udako Txokoei dagokionez, ekainaren 19an amaituko da izena emateko epea.

Ondorengo telefonoetara deitu behar da: 676 163 506 (Dolo) edo 600 484 948 (Manuel).



UDAKO TXOKOETAN JARDUERA
EZBERDINAK LANTZEN DIRA.

Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak, "bihurrikeritan"

Jende ugari bildu zuten larunbat Jarratsaldean Txirri, Mirri eta Txiribiton Junior pailazoek. Frontoian elkartu ziren haur eta gazteek "Bihurrikeriak" ikuskizunaz gozatu ahal izan zuten. NOAUA!k antolatutako ekitaldia izan zen, Udalaren laguntzaz.



www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

ERRAZKIN
Igeltzeritza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K./ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

Enrique Alonso
ITURGINTZA-GASA-BEROKUNTZA
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA
-Oro har libratze-lanak
-TB kamerakin hodi eta
tximinien azterketa
659 675 283

KALEBERRI

ANA URDANGARIN

Mila esker guztioi



Oraingoan eskerrak ematera natorkizue Angel Olanan proiektua aurrea eramateko eduki dugun erakusketan parte hartu izanagatik. Benetan eskertzekoa da jendeak izan duen harrera, ziur nengoen arrakasta izango zuela eta zuei esker honela izan da. Jakingo duzuen bezala, aste guztian izan gara Barrenkaleko lokalean, Etiopiaren aldeko proiektu hone-tan hainbat artistek eginiko koadro zoragarriak saltzen. Eskerrak emateko asko dugu beraz, alde batetik parte hartu duen jende ugari batik bat Pelexi egin duen guztiagatik, horren denbora gutxian guzti-guztia hain txukun lotu izanagatik. Bere lagunmina den Pello ere aipatu gabe ezin utzi, izan ere bere laguntzarik gabe hau dena ez zen posible izango eta beren ikasleek jarri duten interesagatik! Guzti guztiek egin dituztelako arte lan txukun eta zoragarri horiek eta doan gainera, guztiok zaretelako artista batzuk eta Wukro-ko herriak aukera bat gehiago izango duelako. Ezin ahaztu Axun Olan, Angelen iloba hor izan dugulako bere hazia ereiten. Erakusketa arrakastatsua izan da jende askori esker, eta guztiak sartu nahiko nituzke



barruan; familia, lagunak eta herriko jende pilo piloa. Ateratako diru guzti-guztia Wukro-rako bideratuko da Angel Olanek abian jarritako proiektua aurrera eramateko. Igandean egindako zozketako irabazleak hauexek dira: lehen saria, 1651tik 1660ra bitarteko tira izan da. Bigarren saria, 2241etik 2250era. Mila esker parte hartzeagatik. Larraitz eta nire izenean mila mila esker beraz. Ondo izan eta hurrengora arte.

KALEZAR

MADDI GALBETE

Azkenean



Hilabete bat buru belarri azterketetan pasata eta gero, azkenean iritsi da, urtebete zain egon ondoren, udara.

Atera da, azkenean, eguzkia, eta pozik gabiltza, hara eta hona, momentu goxoenak aprobetxatzeko asmoz.

Kurto soan zehar, neguko arratsalde hotzetan pentsatuko planak aurrera ateratzeko ordua iritsi da. Irtsi da neguko arropari agur esateko momentua eta udarakoa janzteko unea: orain denak balio du.

Balio du egunen batean berandu esnatzeak; balio du hondartzara joateak, egunean zehar egiteko besterik edukiko ez bagenu bezala; balio du ordulariari pilak kendu eta zein ordutan bizi garen jakin gabe ere, nahi dugun oro egiteak.

Balio dute, baita ere, udarako lanek, astun zein aberasgarri, xoxa batzuk atera eta bizitzaz pixka bat gehiago ikasteko.

Denon nahiek balio dute eta gainera egi bihur ditzakegu. Azkenean.

ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

Uda osoan festarik festa

Euskal Herriko txoko guztietan festa Egiroa usaintzen hasiak gara dagoneko. Azterketak amaitu dira, eta oporrak hasi ere bai, ikasleentzat noski. Langile askok ordea, aurtengoan oporrekin jai! Animo denontzat!



Ostiral honetan Kalezarren San Juanak hasiko dira. Egun pare bat atsedean hartu eta gero Usurbilgo festetan murgilduta aurkituko gara, Santixabelak bete-bete harrapatuko gaituzte-eta.

Uda osoan festarik festa ibiltzeko parada izango dugula dudarik ez izan, baina abuztuaren azken astebururako indarrak gorde behar ditugula ez dugu ahaztu behar. Atxegaldeko jaiak prestatzen hasiak dira auzoko gazteak. Aurtengoan ere sorpresaz beteriko asteburu paregabea antolatzeke helburuarekin.

Ia ba denon artean pasa den urteko arrakasta lortzen dugun. Ondo pasa uda!!

AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

LurraldeBus festetan



Egunetik egunera hobetzen ari zaizkigu bus zerbitzuak, gero eta eskaintza zabalagoa dugula ezin uka. Usurbilen bizi zaretanak honezkero konturatzen hasita egongo zarete bai Lasarte eta bai Hernani, Urnieta eta Astigarragako loturak orain dela hilabete

batzuk baino errazagoak dituzuela.

Aginagakoak garenok ere pozten gara zerbitzu berri hauekzaliatzeko Usurbileraino hurbildu beharra izanda ere. Ondo dagoena aipatu gabe ezin da utzi, baina ikusten ditudan gabezia batzuetaz hitz egin gabe ere ezin utzi. Gertatu berria den pasadizo bat kontatuko dut, autobus zerbitzu hori hobetu beharra dagoela erakusten duena.

Orain dela aste batzuk Zumaiako San Telmo festak ziren. Larunbata, goizeko bostak. Gure gazte asko ilaran zeuden zain, autobus paradan. Busa ikusi dute eta lehen bultzadizoak hasi dira. Indartsuenak edo antolatuenak nagusi. Eta hauek barrura. Lotsatienak edo beldurtienak kalean geratu dira. Goizeko zazpiak arte gutxienez, hurrengo autobusa ordu horretan izango baitzen.

Busa beteta dago. Esertzeko lekurik ez, pasiloak ere bete-



ta. Bai txoferra eta bai "segurata" beren onetik aterata. Bidaian badoaz nola edo hala, eta hurrengo paradetara iritsitakoan jendea ezin jaitsi autobusetik. Eta horrela ibilaldi osoa. Pentsa dezakezue nola zetorren autobus hori Xubaiko aldapan behera.

LurraldeBusek baditu arduradunak arazo hauen aurrean erabakitzeke ahalmena eta beharra dutenak. Logikak eskatzen du herriko jaiak ospatzen ari diren lekuetan autobus zerbitzuak indartu egin behar direla, ordu jakin batzuetan. Arazoa azkar konponduko dutela espero dugu.

SANTUENEA

ALEX TELLO

Ezagutza ala ez-ezagutza?



Aizu "hura zu bazara, zu naiz ni eta ni hura". Eta, haren bat-bateko agerpena ez zen oharkabekoa izan. Arrotza izateari utzi zion egun batetik bestera eta egun, bertan da bere horretan. Nork jakin noiz arte, bihar, etzi edo etzidamu, joango baita. Lehenago edo beranduago hutsunea utziko du, oharkabeko tarte bat baten batek ikusi

edo gogoan izango duelako, tarteka.

Deiturak garrantzia du. Ez beti, ordea. Izan, badira estimatzen ditudan izen ezezaguneko aspaldiko aurpegiak. Jasoak dauzkat ere, besteak beste, aspaldiko aurpegi izendunak. Oraindik herrian bada nire deitura ezagutzen ez duenik. Deitura, izanaren adierazle eta zein-tasunarena omen. Eta, "deiturak aldatuko bagenu..." Horrela gure arteko hartu emanak aldatuko lirarteke? Litekeena.

Gehiegizko ezagutza ala gutxieneko ez-ezagutza, zerk komeni? Eta esango banizu "gaur jada zutaz jakin dezakedana ez-jakinik, ezagutuko zintuzkedala berriz". Hala, hutsetik hasi eta naturalki ekin. Zer izango litzateke orduan gutaz? Ezinezko aukera izango da.

Horrela, urteak igaro eta belaunaldi berrietakoek edadetu eta txikiagotuko gaituzte. Orain dugun handitasuna, nahigabe ahantzuran ezereztuko dute eta protagonismoa beren deiturek hartuko dute. Hots eurek (hura askoren batura) edo beraiek izango dira guztion ardatz. Ez da presarik horretarako. Oraingoa da gure unea. Aizu, "hark egin zuen, nik egiten dut eta zuk... Zarena zarelarik, zurekin zer?"

ZUBIETA

GARAZI ITURRALDE

II. atala

Aurrekoan nire lehenengo ibilaldia kontatu nizuen, autobus berdean. Oraingoan, bidaia batzuk ondorengo pasarteak kontatuko dizkizuet.

Etiket irten eta bidera nindoala gurasoak agurtu, baita bizilagunak ere, eta hor ikusi nuen autobus berdea pasatzen, nire mutur aurrean. Segituan ordulariari begiratu nion ea berandu nenbilen jakiteko, baina ez ni ez nenbilen berandu, autobusa zen goiz zebilena.

Pasadizo hori gertatu zitzaidanetik etxetik oso goiz ateratzen hasi nintzen, autobusa Usurbildik atera aurretik ni bide bazterrean egoten naiz prest.

Baina beste batean ere berdina gertatu zitzaidan, Lasarten nengoen orduan. Ni ordurako joan nintzen, baina oraingoan ere autobusak muturraren aurrean alde egin zidan. Hau komeria nirea, ni puntual eta autobusa goizegi. Gainera, ez naiz bakarria autobusa galdu duena eta ez da gu berandu ibiltzen garelako, baizik eta autobusa askotan oso goiz pasatzen delako.

Hala ere, oso gustura nago gero eta jende gehiago ibiltzen delako. Lehen beti bakarrik joaten nintzen, orain ordea, batekin ez bada besteren batekin joaten naiz hizketan eta beti badago norbait zerbait kontatuko dizuna.

Ea aste hauetan zehar autobusa pixka bat beranduago etortzen den eta badaezpada lehenago joan beharko da geltokira.



Gazte eta nerabeek biltoki baten falta sumatzen dute

Udalak eta Kalekka enpresak elkarlanean, 13-19 urte artekoen errealitatera hurbiltzen gaituen azterketa burutu dute. Nerabe eta gazteei zuzendutako eskaintza eta zerbitzuei buruz jasotako informazioa Sutegin aurkeztu zuten ekainaren 9an. Emaitzak eskuartean izanik, Kalekkatik biltzeko gune hezitzaile bat, Gazteleku modukoa, informazio gune bat eta kale heziketa programa martxan jartzea proposatzen dute. Orain, Udalak du azken hitza.

Haur txikientzako eta hirugarren adineko jendearentzat gauzak badaude eta gazteentzako zer? Galdetzen dute Udarregi ikastolako DBH-ko ikasleek. Kalekka enpresak Udalarekin elkarlanean burutu duen gazte eta nerabeen alorreko ikerketan jasotako adierazpenetako bat da.

Hainbat hutsune

13-19 urte arteko gazte eta nerabeak izan dira ikerketaren jomuga. Eta adin tarte horretako herritarren profilaren arabera, ikastorduetatik kanpo astean zehar kirol jarduerak, ikastaroak, antzerkigintza, etxean edota lagunekin kalean egotea dira euren denborapasa nagusiak. Asteburuetan berriz, Usurbilen gelditzeko joera duten arren, badira inguruko herrietara joan ohi direnak ere. Aspertzen direla ere aipatu izan dute.

Herrian hainbat hutsune sumatzen dituzte. Besteak beste aisialdiko eskaintza indartzea, baina batez ere, biltzeko leku bat. Horren faltan, egun herriko lagun talde askoren topagunea alokairuan hartuak dituzten lokalak dira. Halere, aipatu bilguneak eskuratzeko ere zenbait zailtasunei aurre egin behar diete; hala nola, diru arazo, gurasoen desadostasun edota lokal eskaintza murriztari.



KALEKKA ENPRESAKO BI GAZTE HAUEK IKERKETA BAT EGIN DUTE HERRIAN.

Eskaintza egokitu beharra

Kalekka enpresak eta Udalak elkarlanean burutu duten ikerlanean, gazte eta nerabeak elkarrizketatzeaz gain, herrian dauden zerbitzu eta baliabideak zeintzuk diren aztertu dituzte. Ondorioztatu dutenez, kopuruz ugariak izan arren, ez dira bereziki azterlaneko jomuga izan diren adin tarteko herritarrei zuzentzen. Kultur arloan dagoen Aholku Batzorde moduko bat ere faltan sumatzen dute,

alor hau landu edota udal departamentu, zerbitzu zein baliabideen arteko elkarlana eta koordinazioa bultzatzeko.

Bestalde, gazte eta nerabeei zuzendutako eskaintzari buruzko informazioa ematen den arren, ikerketaren arabera, dirudien hartzailengana ez da heltzen. Haiei zuzendutako eskaintzak 13-19 urte artekoen zaletasun edota beharrekin bat ez datozela dirudi. Eskaintzan egokitzen falta sumatzen dute.

Gaztelekua, erreferentzia puntua

Kalekka enpresako bi ordezkariak egindako azterlanaren emaitzak aurkeztu zituzten ekainaren 9an Sutegin. Ondorioak esku artean, zailtasun egoeran dauden gazteei zuzendutako kale heziketa programa martxan jartzea proposatzen dute. Eta baita, honako ezaugarriak dituen biltzeko leku bat, Gazteleku moduko bat zabaltzea ere:

- Espazio giza hezitzailea.
- Parte hartzailea.
- Informatzailea: ekintzak, tailerrak, lan orientazioa, ikasketak, bidaiak...

-Ohitura osasuntsuen bultzatzailea, erreferentziazko figura hezitzaileekin.

-Espazio erreferentziala gazteentzat.

-Nerabe eta gazteen intereseko ekimenen bultzatzailea.

-Hezkuntza eta kultura sustatzailea.

-Prebentzioa eta informazioa ardatz dituzten ekitaldien sustatzailea.

-Gazte elkarteak sortu eta garatzeko laguntzailea.

-Gazteriako ardura duten zerbitzuen koordinatzailea.

-Komunikazio bideen sustatzailea.

Euskara ikasi dutenek diru-laguntza jasotzeko eskubidea dute

Udalak 2008/2009 ikasturtean Euskara ikasi dutenentzat eta UEUko ikastaroak egingo dituztenentzat diru-laguntza deialdia egin du. Eskararak aurkezteko epea ekainaren 15etik 30era bitartekoa izango da.

-Euskara ikasleek: matrikula-kostuaren %80a jasoko dute.

-Euskara ikasleak, 12 urtetik beherako seme-alabak dituzten gurasoek, matrikula-kostuaren %100a.

-Euskara ikasle langabetuek: matriku-

la-kostuaren %100a.

-UEUko ikastaroak egin dituztenek: matrikula-kostuaren %60a jasoko dute.

Autoikaskuntza sistema bidez euskara ikasi dutenek ere diru-laguntza jasotzeko aukera izango dute aurten.

N!

gehigarri berezia
San Joanak kalezar

09
ekainak 24



Asteburu honetan hasiko dira festak

Asteburu honetan San Joanak non ospatuko diren esan beharrik ez da. Batzuentzat, Usurbil-Zarrear, beste batzuentzat Belmonten, gehienontzat Kalezarren... Buruhandiek ekarriko dute jaietako zalaparta ostiral honetan.

Larunbatekoa oilasko biltzaileen eguna izango da eta, igandekoa, umeena.

San Joan bezperako eskea asteartearrekin egokitu da aurten. Eta jaiak, egun handian amaituko dira, ekainaren 24an asteazkena. Egitarauan azaltzen ez bada ere, Txerriki Gazte Koadrilakoak antzerki saioa eskainiko dute San Joan egunean.



AUZOTARREN ARTEKO JOKOAK OSTIRAL ARRATSALDEAN EGINGO DIRA.

Oilasko biltzaileak, larunbat honetan



Ohiturari jarraituz, goizean goiz abiatuko dira oilasko biltzaileak. Txikiak ere aterako dira, baina beranduxeago.

Herriko dantzarien erakustaldia



Dantzari gazteek, ikasturtean zehar ikasitakoa erakusteko aukera izan ohi dute San Joanetan.

Nork irabaziko du patata tortilla lehiaketa?



Patata tortilla lehiaketan izaten da saltsa eta piperra. Ea aurten nork ermaten duen lehen saria!

Odolaren Mintzoa taldearen kontzertua



Usurbilgo talde gazte hau ezagutzeko aukera aparta dugu larunbat gauean. Ondoren, Dj Larraren txanda.

Umeen Egunean, jolasak eta txokolatada



Igandekoa izango da umeen egun handia. 10:00etan krossa hasiko da eta ondoren, jolasak, txokolatada...

Soka dantza, auzotarrei eskainia



San Joan eguneko arratsaldean egin ohi da jaietako ekitaldi ederrenetakoa. Ondoren, sardin eta sagardo dastaketa.

San Joanak, egunez egun

Ekainak 19, ostirala

18:00 Buruhandiak,
trikitilariak lagundurik.
19:00 Auzotarren arteko jokoak.
23:30 Trakets taldearekin dantzaldia.

Ekainak 20, larunbata Oilasko biltzaileen eguna

06:00 Gosaria eta oilasko
biltzaileen irteera.
09:00 Oilasko biltzaile
txikien irteera.
14:00 Oilasko biltzaileen bazkaria.
16:00 Mus txapelketa.
Izen ematea, arratsaldeko
16:30ean itxiko da.
18:00 Herriko dantzariak.
19:30 Patata tortilla lehiaketa.
Ondoren, buruhandiak.
23:00 Kontzertua:
Odolaren Mintzoa.
Ondoren, DJ Larra goizaldera arte.

Ekainak 21, igandea

Umeen eguna
10:00 VI. Ume Krosa.
11:30 Jolasak.
16:30 Tailerrak.
18:30 Txokolatada.
Ondoren, buruhandiak.

Ekainak 23, asteartea San Joan bezpera

15:00 San Joan eskearen irteera.
22:00 San Joan sua.
Ondoren, eskearen jarraipena.



Ekainak 24, asteazkena San Joan eguna

11:00 Meza Nagusia.
Ondoren, toka.
13:00 Gorritiren showa.
17:00 Txerriki Gazte Koadrilaren
antzerki saioa.
18:00 Buruhandiak.
19:00 Soka dantza.
Ondoren, sardina eta sagardo dasta-
keta, jaiei amaiera emanez, Saizar
Sagardotegiaren eskutik.
Antolatzailea: Kalezar Jai Batzordea.

ANDER ARANZAZISTROKI

industri
garbiketarako
sistema eta
produktuak



Ondo pasa
San joanetan!

GOIEKO

667 680 236

Ondo pasa San Joanak!!

izagirrelektrizitatea@hotmail.com

izAgirre

ELEKTRIZITATEA

Golz Argi etxea, 37 kalezar

Tel.: 943 36 50 95

Mugikorra: 609 068 111

Faxa: 943 37 65 87



ALUAL, S.L.

Telf.: 943 370 506
Faxa: 943 370 550

Aluminiozko aroztegia
Zubi termikoaren hausturarekin
Egurraren imitazioa
Poliuretanozko Belkopur leihoak

Ugalde industrialdea 20 - behea USURBIL

Josue
Igeltseritza

Fatxaden estaldurak
Estalkien berriztatzeak
Barruko berrikuntzak
Gremioen koordinaketa

☎ 606 37 21 05

Ondo pasa
San joanetan!

Igeltseritza orokorra

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu, 28
20170 - USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

SAIZAR

Sagardotegia

Ondo pasa
San joanetan!

www.sidrassaizar.com
Kale-zahar Auzoa, 39 • Tel. 943 36 22 28
U S U R B I L




Birziklatze maila %80koa izan zen apirilean




Iaztik hona, 173.200 kilotik 25.380ra jaitsi da San Markosko Mankomunitatera garraiatu den hondakin kopurua. Duela hiru hilabetik abian den atez ateko bilketari esker, apirilean hondakinaren %85 zabortegira garraiatzea saihestu zen. Ondorengo grafikotan, gaika birziklatze mailak igaro den apirilera arte izan duen bilakaera erakusten da. Agerian geratzen denez, bilakaera positiboa.

Atez ateko bilketa sistemak hondakin kudeaketaren grafiko, zifra eta datu guztiak modu nabarmenean irauli ditu. Martxoaren 16an abian jarri zenez geroztik, lehen hilabete eta erdian, bereziki lehen jasotzen ez zen eta gaur egun asteen hirutan biltzen den organiko kopuruak gorantz egin duela agerian dago. Bai atez ate jasotakoak, eta baita, udal estimazioen arabera, lauhundik gora etxebizitzetan egiten ari den auto-konpostatzeari esker.

Joera bera erakusten du, boluminosoek, hau da etxeko altzari edota inausketa bilketak. Eduki ontzien sistemaren bidez lehen jasotzen ziren zatietan ere igoera izan da. Ontzien birziklatze-maila gorabeheratsua den arren, iaz baino gehiago jasotzen da. Baita beira ere. Papera eta kartoiari dagokionez, birziklatze maila iazko kopuru beretsutan mantendu da.

Erreusa, garbia

Birziklatze mailak %80ko muga gainditu zuen apirilean. Gainerakoa, erreusa, askoz kopuru murrizagoan garraiatu zen San Markosera. Erreus garbia, organikorik gabea da. Beraz, usain txarrik ez du eragingo, ezta kutsadurarik



ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak



EGUZKITZA, 4 USURBIL · 943 370 344

LATAILLADE   

ITURGINTZA

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 885 021

Oria ibaia ezagutu eta zaintzeko aukera aparta

Puntapax Kanoe taldeak zeharkaldiak antolatu ditu asteburu honetan

Ingurumena zainduz ospatuko du Puntapax Kanoe Kirol Elkartek bere bosgarren urteurrena. Baita dugun inguruneaz gozatzeko aukera eskainiz, Orian barrena piraguan zeharkaldia eginez. Ekainaren 20 eta 21erako ekitaldi bana antolatu dute.

Bost urte bete ditu Puntapax Kanoe K.E.-k eta aipatu urtemugari begira, bi ekitaldi antolatu dituzte asteburu honetarako. Ingurugiroa zaintzeko beharraz ohartarazi eta inguruneaz gozatu asmoz, Oria ibai ertzak txukundu eta bertatik zeharkaldi bat egitea proposatzen dute, piraguan jakina. “Lehendik egondako leketara joateko aukera izango da, baina ibaiko ikuspuntutik begiratuta leku berri bat dela dirudi”, adierazi du elkarteko kide Ibai Gomezek.

HASIBERRIENTZAT, EGOKIA

“Inoiz piraguan ibili ez dena, etor dadila ekainaren 20an eta proba dezala”

Ekitaldiak irekiak dira, edonork parte har dezake. Baldintza bakarra, igeri jakitea litzateke. Piraguan ibiltzera ohitua egon ez eta ekainaren 20 eta 21ean burutuko diren ekitaldietan parte hartu nahi duenarentzat gonbita luzatzeaz gain, aholkurik eman nahi dute antolatzaileek. “Inoiz piraguan ibili ez dena, etor dadila hilaren 20an eta proba dezala Aliri zubi inguruan moldatzen ote den”, adierazi du Gomezek.

Garbiketa lanak

Larunbatean Zubietako Aliri zubi paretik piraguan ibaian barrena ertzak garbitzen joango dira. Beharra badago eta, antolatzaileek diotenaren arabera.



SANTIXABEL JAIETAN ETA ZUBIETAKO SANTIOTETAN ERE IZANGO DIRA PIRAGUA ZEHARKALDIK.

“Egia esan, gaizki dago. Batez ere, itsas maila jaisten denean nabari da. Orduan ikusten dira zuhaitz adar guztietan plastikozko poltsak, jendeak botatako zerrikeria”, dio Puntapax Kanoe elkarteko kideak.

Izena ematea, ekainaren 18ra arte

Ekitaldietan parte hartu nahi duten guztiak aldeztu aurretik, honako telefono zenbakira deitu behar dute: 651701519 (Joxeba Azkorreta). Izen emateko azken eguna, ekainaren 18a izango da.

Ekintzetako aseguru gastuei aurre egiteko, hamar euro ordaindu beharko ditu parte hartzaile bakoitzak.

Puntapax Kanoe hamabost bat kidez osatutako klub irekia da, aisialdi mailako piraguismoa bultzatu nahi dute, turistikoa alegia. Oria ibaian zehar ibili edota itsasora ere atera ohi dira. Beste hainbat irteera ere egin dituzte. Materiala uzteko egoitza Aginagan dute, baina elkarteko kide Gomezek esanetan, “ez ditu ordea guk nahiko genituzkeen baldintza guztiak betetzen”.

Udan, ekitaldi gehiago

Kirol taldetik iragarri dutenez, datozen asteotan piragua gainean ibiltzeko aukera gehiago izango da. Santixabel jaietan, uztailaren 5ean, edota Zubietako Santioetan hilaren 31n. Bestalde, irakasle tituludun baten eskutik astebeteko piragua ikastaroa antolatzeko asmoa dute. Baita piraguen konpontzeko tailer bat ere.

Errioan eta itsasoan ibiltzeko aukera

EKAINAK 20, LARUNBATA

ALIRI INGURUAN

16:00 Aliriko zubitik hasita, Oria ibaiaren ingurunea ezagutu eta zaindu.

EKAINAK 21, IGANDEA

ORIOK TXOKOALDERA

09:30 Frontoi atzeko plazan. Gero, Orioko hondartzatik Txokoalderaino.

Eskubaloiairen eguna ospatuko dute larunbatean

Udako oporretan murgildu aurretik, Usurbil KE taldeko kideek denboraldian zehar egindakoa ospatu nahi dute. Larunbat honetan, festa modukoa antolatu dute eta jokalar, guraso, entrenatzaile eta klubeko ordezkariak bertan partehartzeko deialdia egin zaie. Lehenik, kirol pixka bat kiroldegian eta ondoren, afaria Aginaga sagardotegian.

Uda eta gero berriz hasiko dira entrenamenduak, lehiaketak. Baina lehenik eta behin aurten egindakoa ospatu nahi dute. Hortik dator larunbat honetarako antolatu duten festa. Arratsalde partean, eskubalo partidak jokatuko dira kiroldegian eta gau partean afaria egingo dute Aginaga sagardotegian.

Arratsaldeko 16:00etan, kadete eta jubenil mailako mutilak, guraso eta entrenatzaileen artean eskubalo partidak jokatuko dute. 17:15ean, kadete eta jubenil mailako neskek, jokalar ohiak, guraso eta entrenatzaileen aurka neurtuko dituzte indarrak.

18:30ean senior eta jokalar ohiak



IAZ ERE, HAINBAT PARTIDA JOKATU ZITUZTEN JOKALARI, ENTRENATZAILE ETA GURASOEN ARTEAN.

partida-desafioa izango dute.

Afaria Aginagan

Nahikoa izerdi bota ondoren, Aginaga sagardotegian afaltzera joango dira, kiroldegian xahututako indarrak berreskuratzera.

Afaldu ondoren jokalar onenen sari banaketa izango da.

Aginagako afaritako menua sagardotegikoa izango da (kafea barne). Kadete eta jubenil jokalariek 19 euro ordaindu beharko dituzte. Gainontzekoek, 26 euro.

Izena emateko txartelak herriko tabernetan jarrita daude.

“Kirolari ateak zabalik” eguna



Aurreko igandean, *Kirolari Ateak zabalik* egunarekin bat egin zuten irudian azaltzen direnek. Txokoaldeko buelta eman eta gero, hamaiketako egin zuten Artzabalaren.

Birentzat afaria irabazi du Saltxipin



Ane Agirrek irabazi du eskubalo taldeko azken zozketa, Saltxipi jatetxean birentzat afaria. Usurbil KEk eskerrak eman nahi dizkie partehartzaileei eta Saltxipi jatetxekoei.

Pilota Txapelketa final-erdietara iritsi da

EKAINAK 20 LARUNBATA, 11:00

JUBENILAK

Manterola-Alustiza/Iriondo-Murgiondo
(AMEZKETA) (AZPEITIA)

NAGUSIAK

Barberena anaiak / A.Aranburu-Elola
(BAZTAN) (LASARTE)

EKAINAK 21 IGANDEA, 11:00

JUBENILAK

Urbietza-Otaegi / Loban-Etxamendi
(TOLOSA) (BURLATA)

NAGUSIAK

Lizaso-Pebet / Lansalot-Galarza
(BILLABONA) (BARAIBAR)

Pala Txapelketa, azken laurdenetan

Gomazko pala txapelketa azken laurdenetara iritsi da. Igande honetan, arratsaldeko 17:30etik aurrera jokatuko dira partidak horiek, Usurbilgo frontoian. Hemen dituzue aurreko asteburuko emaitzak eta asteburu honetako partidaren xehetasunak.

EKAINAREN 14KO EMAITZAK

Unai Loidi – Esteban Roteta 10
Eneko Harreguy – Haritz Harreguy 25

Eneko Harreguy – Mikel Arroio 19
Oidui Usabiaga – Mikel Aranburu 25

Xabier Errasti – Manuel Galarraga 25
Iñigo Irastorza – Imanol Esnaola 10

Mikel Otaegi – Xabier Izeta 25
Gorka Aierbe – Karlos Aizpurua 17

EKAINAK 21 IGANDEA, 17:30

Oidui Usabiaga – Mikel Aranburu
Iñaki Errekondo – Jon Arruti

Ibon Azkonobieta – Eneko Iradi
Xabier Errasti – Manuel Galarraga

Josu Errekondo – Haritz Harreguy
Xabier Izeta – Jon Irazustabarrena

Enrike Huizi – Unai Latallade
Josu Arruti – Haritz Zubiaur

Agenda !!

Ekainak 17 asteazkena

- Udajolaseko bilera, gurasoei zuzendua. Arratsaldeko 17:00etan Udarregi ikastolako barne-patioan.

Ekainak 18 osteguna

- Kontzertua, musika txokoko ikasleak. Udarregi ikastolan, 17:00etan.

Ekainak 19 / ekainak 24

- San Joan jaiak Kalezarren (ikus 11. orrialdea).

Ekainak 20 larunbata

- Eskubaloi taldeen eguna (ikus egitaraua, 15. orrialdea).

Ekainak 22 astelehena

- Zumarteko abesbatzen kontzertua, 18:30ean San Estebango elizan.

Ekainak 26 ostirala

- Angelica Liddellen "Ricardoren urtea" obran oinarritutako antzezlan. 22:30ean Sutegin. Sarrera, 3 euro.

Eguneko goardiako farmaziak

Ekainak 18, osteguna
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Ekainak 19, ostirala
Rodriguez, Nagusia 42 atz., Lasarte

Ekainak 20, larunbata
Gil, Nagusia 24, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil *

Ekainak 21, igandea
Gil, Nagusia 24, Lasarte

Ekainak 22, astelehena
Gil, Nagusia 24, Lasarte

Ekainak 23, asteartea
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Ekainak 24, asteazkena
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Ekainak 25, osteguna
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Ekainak 26, ostirala
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Ekainak 27, larunbata
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Ekainak 28, igandea
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Castilla Farmazia (22:00-09:00), Urbietakalea, 7 Hernani 943 552 941
*Usurbilen, soilik eguerdina arte

Zuzeneko saioak, ikasturteari agur esateko

Laster oporretan izango dira ikasleak. Baita Zumarte Musika Eskolara doazenak ere. Azken hauek, ordea, oholtza gainean agurtuko dute ikasturtea. Asteartean hasi ziren ikasturte amaierako kontzertuak. Astelehenean, abesbatzek San Estebango elizan eskainiko duten kontzertuarekin amaituko dira ikasturte bukaerako kontzertuak.

Asteartean eta asteazkenean, talde instrumentalak aritu ziren Sutegin. Ostegun honetan, hilak 18, Musika Txokoko ikasleek kontzertua eskainiko dute ikastolan, arratsaldeko 17:00etan hasiko den kontzertuan.

Astelehenean, ekainak 22, abesbatzen txanda izango da. Bitxia da por-



LARUNBAT HONETAN, 17:30EAN FRONTOIAN ARITUKO DIRA PAILAZOAK.

posamena, honakoan, San Estebango elizan arituko baitira kantuan. Arratsaldeko 18:30ean hasiko da abesbatzen saioa.

Abesbatzen saioarekin amaituko da Zumarte Musika Eskolako ikasturtea. Iraila arte, oporrak.

Artelan erakusketa Barrenkaleko lokalean

Dobera Euskara Elkarteak, Hernaniko artisten sorkuntza sustatu eta artista horien lanak jendeari ezagutzera emateko artelaren lehiaketa antolatzen du. Aurtengo edizioan sei artistek hartu dute parte eta guztira hamaika obra aurkeztu dituzte.

Erakusketa honetan Dobera Saria IV edizioan parte hartu duten artisten lanez gozatzeko aukera dago. Artisten artean bi usurbildarren lanak ere topatuko ditugu: Iñaki del Campo eta Angel Jimenez.

Erakusketa ekainaren 19ra bitartean egongo da zabalik, 18:00etatik 20:00etara, Barrenkalen (udaletxe ondoan).

Santixabeletako Bertsopaper Lehiaketa

Uztailaren 1ean amaituko da partehartzeko aukera. Bete behar diren baldintzak: **usurbildarra izatea, gai librean idaztea.**

Aurkeztutako lanek behar duten kalitaterik ez badute, **sariak eman gabe utz daitezke.**

Gutxienez 8 bertso idatzi behar dira eta ghienez 10.

- Lanak egilea nor den adieraz dezakeen daturik gabe aurkeztuko dira, izengoitiz. **Lanarekin batera kartazal itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak ipini.**

-Lanak Udaletxera eman edo postaz bidali: XXXI. Bertsopaper Lehiaketa, Joxe Martin Sagardia Enparantza, 20170 Usurbil.

ETXEBIZITZA

- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 6400 metro karratuko lursailean. Kalezarko eremu urbanoan. 665720913.
- Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414
- Pisu bat daukat alokairuan eta pisukide baten bila nabil. Hilean 250 euro. 615 006 390.
- Santuenean etxebizitza bat daukagu salgai. 2 logela, sala, sukualdea eta komuna dauzka. 28 milioi negoziagarri. 619591849 / 626456448.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Pisia salgai Usurbilen (Txaramunto; 2 urte). 97 m² - erabilgarri. Egongela-sukualdea (35 m²), 3 logela, 2 bainugela, balkoia, arropak esekitzeko toki itxia, garajea, trastelekua eta igogailua. Eguzkitsua. 375.000 euro. 616443507.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m² ditu. Gela bakarrekoa, sukualde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituena. Dena berriua eta amueblatua. 45.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukualdea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukualdea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Peugeot 307a salgai. XS 2.0 HDI bertsioa. 90 cv, 5 ate. 2002ko maiatzean matrikulatua, 149000 km ditu. Oso egoera onean dago. Korrea eta alternadore berriak ditu. Gris metalizatua, Parrot markako telefonorako esku- librearekin. 6000 euro negoziagarriak. 685725639.

- Usurbilgo industrialde batean 220 metro karratuko pabiloi bat alokatzen da. 616926027.
- "Yamaha especial 250" motorra salgai. Egoera onean, 700 euro. 615 006 390.
- Mitsubishi Montero DI-D 3.2 GLS motza salgai. 148000Km, 6 urte. Tel.: 678636965
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajea, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m²-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, parrilarako pertsona bat eta beste bat zerbizari moduan aritzeko behar ditugu. 943 36 67 10.
- Usurbilgo Sendategiak erizaina behar du OLT-EDU (ATS-DUE). Lan baldintzak jakiteko 943361124 telefonora deitu.

Lan-eskaintzak

- Neska arduratsua etxeko lanak, haurrak zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. 699207750
- Zerbizari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Emakumea adineko pertsonak zaintzeko prest, interna moduan. 608 098 941.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.

- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka edota plantxan aritzeko: 630 438 571.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. 616 376 591.
- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00 edo kontestagailuan mezuia utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Maiatzak 8an Kodak markako kamara digital bat galdu genuen Kaxkoan. 678177129
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki)
- Artzabal inguruan maleta txiki bat, kotzeko bi DVDrekin aurkitu dugu. Galdu duenak deitu 656774127 telefonora.
- Frantseseko kalaseak ematen ditut Usurbilen. Astelehen eta asteartetan. Klaseak maiatzean hasita daude baina oraindik plazak daude. Informazio gehiago Laurok liburudendan.
- Belardiak behar dira belarra ontzeko: Usurbil, Lasarte edo Donostia inguruan. Danitz galdeu. 607 457 004 / 943 36 60 40.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatua bazuade maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbizua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925
- 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. 6567652 13.
- Argazki zaharrak txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



Zorionak Haritz!

Ekainaren 21ean 4 urte beteko dituzu. Ea prestatzen diguzun merendola goxo goxo bat. Ondo igaro zure eguna, marrubizko muxuak aita ama eta Maitaneren partetik.



Ekainaren 7an izan zen lehenengo eta bigarren mailako judoko exhibizioa Errenteriako kiroldegian eta han ibili ziren pozik talde osoa eta datorren larunbatean, ekainak 20, Usurbilgo kiroldegian izango dira taldekide guztiak. Aupa txapelduinak eta jarraitu horrelaxe!

JAIOTZAK

- Aner Redruello Gimeno maiatzaren 27an

URDAINTZI S. L.
GAIKUNTZA

6043 4167 2664
6043 4167 475
6043 4167 475

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL
☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65



“Ederra da
gauzak ondo egitea”

BIRZIKLAPENA
ATEZ ATEKO SISTEMAREKIN
%76
zabortegiak ekiditen du: BAI
errauste-planta ekiditen du: BAI

Usurbilen atez ate, Gipuzkoan arnas bete.

Usurbilen ezarritako atez ateko zabor bilketa sistemarekin, hondakinen **%76a** birziklatzea lortu dugu. Horri esker, alde batera utziko ditugu zabortegi zaharrak, eta, gainera, ez da errauste-plantarik behariko. Zergatik jarri osasuna arriskuan inolako beharrik gabe?

BIRZIKLAPENA
KALEKO EDUKIONTZIEKIN
%28
zabortegiak ekiditen du: EZ
errauste-planta ekiditen du: EZ

osasuna atez ate

Usurbil
osaturik atez ate



bulegorako altzariak eta hornidura paper dendarako artikuluak

Ugaldea Industrialdea, 11
Tfno.: 943 365 892 · Faxa: 943 371 686
20170 USURBIL (Gipuzkoa)
manpel@manpel.com · www.manpel.com



EDERTU ZAITEZ!

FOTODEPILAZIO ESKEINTZA

35€/sesioa

55€/sesioa

95€/sesioa

195€/sesioa

*zonalde eta sesio bakoitzeko prezioak BEZ barne

Solariuma

Zubiaurrenea, 5-B ☎ 943 361 971

Ioli Lizarralde

Ileapaindegia • Estetika Zentroa Marcho Casaresen eskutik.



Bixen

ileapaindegia

Solariuma
Depilazioa

nagusia 10, Usurbil 943 37 28 44



Agate

ESTETIKA ZENTROA

- Depilazioa • Laser-depilazio
- Manikura • Aurpegiko Tratamendua
- Pedikura • Solariuma • Makilaja

Nagusi 51 • Lasarte-Oria 943 370 549

Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu



INTZA
WELLA ILEAPAINDEGIA

Eguerditan Irekial Nagusia 8. 943 36 36 41



Elexpe

ileapaindegia

Biteleen tintaketa eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zulirako eta Etzandako Solariuma

Muna Lurra 12. ☎ 943 370 462



ileapaindegia

mistoa

Depilazioa
Makilajea
Manikura

Zubiaurrenea 4, USURBIL • ☎ 943 361 951